


# noaua



## HURBILAGO ELKARTEAK 'ORDAINDU 20 ETA ESKURATU 30' DESKONTU-KANPAINA JARRI DU MARTXAN


Deskontu-bonuak gertuago.eus web orrialdean eskuratu daitezke / 18

ARGAZKIA: GERTUAGO.EUS




NOAUA

**Zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba orokor eta feminista, ate joka / 07**




NOAUA

**Tren zerbitzuan etenaldiak, geltoki berriko lanak direla eta / 19**



AIURRI

**Irati Aranguren gazte usurbildarra marka guztiak apurtzen ari da / 21**



NOAUA

**Zuberoako ikastolen aldeko jaialdia larunbat honetan ospatuko da / 26**

# Auto Guria s.l



**Auto Konponketa**  
**Pre I.T.V.**  
**Marka guztiak**  
**KONFIDANTZAZKO TAILERRA!**

943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

# Antxeta

TABERNA-JATETXEA



Askotariko frijituak  
Antxeta entsalada  
Piper beteak  
Arrain zopa  
Barazkiak tenpuran

-----

Arkume txuletak  
Txahal-biribila  
Txipiroiak  
Bakaioa  
Saiheskia

-----

Jogurt moussea / Pantxineta  
Arroz esnea / Flana  
Txokolatezko coulant-a  
(edaria eta kafea menutik kanpo)

**18€**  
(BEZ BARNE)

*antxeta*  
**ASTE BURUKO MENU BERRIA!**

**egunero irekitzen dugu!**  
·eguneko menua (astegunetan) ·asteburuko menua  
·ogitartekoak, pintxoak, razioak, paellak  
eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 54 43 12

# PORNOA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ESKOLA BAT DA

Eszena pornografikoen % 88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo hitzezkoa du.

Ez dezagun sexu-heziketa bere eskuetan utzi.

azaroak **25** Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

**900 840 111** 24h  
**DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU**






## Joseba Larratxe: "Euskadi Saria etxean da!"

'Ni ez naiz Mikel Laboa' komikiari esker jaso du saria. Duela aste batzuk jakinarazi zen, baina aurreko astean Getxon eginiko sari banaketan eskuratu zuen garaikurra. "Eskerrik asko zoriondu nauzuen guztioi eta zorionak beste sarrituei ere!", idatzi zuen biharramunean sare sozialetan.

Saria jaso zuen egun berean, komikia oinarri duen erakusketa zabaldu zuten Donostia-ko Okendo kultur etxean.



Sari banaketa ekitaldia azaroaren 15ean egin zen Getxon. Argazkian, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua, Joseba Larratxe marrazkilaria eta Iñigo Urkullu lehendakaria.

### Garbigune mugikorra, Aginagan

Azaroaren 23tik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Azaroaren 30ean osteguna, garbigune mugikorra Txokoaldera eramango dute.

### Ostiral honetan, elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

Hileroko azken ostiraleko mobilizazioa iragarri du Sarek. 20:00etan elkartuko dira Mikel Laboa plazan. Urriko elkarretaratzean, 'Konponbiderako Giltzak' manifestua plazaratu zuten. Sareren esanetan, "guztiok gara giltza konponbidearen eta bizikidetzaren atak parez pare irekitzeko".

### Xumetik jaialdian eginiko buztinezko piezak, eskuragarri

Xumetik jaialdiaren baitan, buztina lantzeko tailerra antolatu zuen Buztinzulok. Pieza horiek dagoeneko jasotzeko moduan dira. Horretarako, Buztinzuloren egoitzara joan behar da: azaroaren 28an asteartea, 17:00etatik 19:00etara, Atxegaldeko Alperroburu kalean duten lokalera.

### 1947ko kinto bazkaria abenduaren 17an, ez 19an

1947. urtean jaiotakoak Artzabalen elkartuko dira abenduaren 17an igandea. Hila-bete falta da baina izen-ematea zabalik da dagoeneko.

Piliri deitu 678 368 980 telefono zenbakira edo Anari bestela, 637 989 414.

Izena emateko epea lehenago itxiko da.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkartea  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzailleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

IRITZIA



AINHOA AZPIROTZ EIZMENDI

## Greba teorikoa ala praktikoa?

**A**zaroaren amaierara heltzearekin batera, emakumeen aldarrikapenek lekua hartuko dute: azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna edo Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da. Eta azaroaren 30erako Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba feminista orokorrerako deialdia egin du, zaintza eskubide kolektiboaren alde.

Azaroaren 25ari lotuta, Urbasa, Orio, Iruñea, Gasteiz... datozkit gogora. Bortxaketa, jipoiak, labankadak, hilketa bikarioa, adingabeen hilketa, suizidioa; gizona, emakumea, umeak... biktimak, erasotzaileak... Amorrua, haserrea, inpotentzia, gorrotoa, beldurra... sentitzen dira. Eta nazka; nazka ere bai, biguina, goragalea. Egun horretan Lau ahizpa magikoak pelikulako emakume "gaiztoa" bezala atera beharko genuke, emakume guztiok ahotik apoak botaz. Gure nazka adierazko modu bat izango litzateke.

Azaroaren 30ak, berriz, galdera asko sorrarazten dizkit, eta erantzunik falta zaizkit. Euskal Herriko Mugimendu Feministak Denon Bizitzak Erdigunean prozesua abiatu zuen 2022an, zaintza sistema iraultzeko, eta bide horretan greba mugarririk izango dela diote. Lanuzte eguna izango da, orokorra eta feminista.



"Akaso azaroaren 30ean zainketa lanak egiteko prest dauden gizonen zerrenda bat egin beharko genuke".

Ideiak argi daude, greba egiteko arrazoiak ere bai, baina jada hainbat andre arrazializatutako salatu dute (Zumaian, 2023ko azaroaren 11n) ez dutela greba egiteko eskubiderik eta aukerarik. Greba estrategia baztertzailerik bat dela argudiatu dute, "pertsona arrazializatu, migratu eta ijito gehienak sektore arautu gabeetan edo babes sindikalik gabekoetan lan egiten duten heinean, hala nola etxeko lanetan edo kaleko salmentan". Baldintza horietan grebarekin ezin dutela bat egin diote, eta mugimendu feminista, oro har, "zuria" dela. "Greba al da zain-

**"ZER GERTATUKO DA ZAHAR EGOITZETAKO ADINEKO PERTSONEKIN ZAINZAILERIK GREBA EGITEN BALDIN BADUTE?"**

tza krisia salatuzko tresnarik egokiena?", galdetzen dute.

Familian edo inguruan dauden egoerez pentsatzen jarrita, galdera ugari sortzen zaizkit: zer gertatuko da praktikan azaroaren 30ean? Zer gertatuko da emakume internabatek ez badu grebarik egiten? Eta greba egiten baldin badu, ekonomikoki zer suposatuko dio? Eta nork zainduko du zaintzen duen pertsona? Etxez etxeko laguntza zerbitzuetako langileek greba egiten baldin badute, nor joango da etxe horietara azaroaren 30ean? Zahar egoitzetako langileek greba egiten baldin badute, zer gertatuko da bertako adineko pertsonekin? Akaso azaroaren 30ean lan horiek egiteko prest dauden gizonen zerrenda bat egin beharko genuke?

Galderak soberan daude, baina galderak hausnartzeko eta erantzunik bilatzeko bidea irekitzen dute, eta une honetan erantzun praktikoa emateko eta zaintza sistema iraultzen hasteko momentu egokian gaude.

## Santa Zezili eguna

Musikarien eguna ohi bezala kalean herriarekin biziko du Zumartek datorren azaroaren 23an, Euskal Herri mailako Musikalean ekimenarekin.

### Azaroak 23, osteguna

- 18:00 Kalejira: "Musikalean" kalejira egingo da talde instrumentalarekin.

- 19:00 Kontzertua Sutegiko auditoriumean instrumentu eta talde desberdinekin.

Sarrera: doan.

Antolatzailea: Zumarte.

## 'Hopper, oilasko erbia' filma eskainiko dute igandean Sutegin

Hopper filmak Pedro erregearen seme adoptatuaren istorioa kontatzen du. Erdi oilasko eta erdi erbi jaio zen abenturazale ospetsua. Onartua izateko irrikaz, Hopper abentura zirrarragarri batean murgilduko da bere zerbitzari leial Abe dortoka sarkastikoarekin eta Meg borroka-arteetan aditua den mofeta ausartarekin batera. Igande honetan, arratsaldeko 17:00etan Sutegin. Sarrerak [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman eskura daitezke.

## Barreterapia Santuenean

Azaroaren 25ean, 10:30-12:30 artean, Santueneko Gure Txikiak ludotekan. Sarrera, 6 euro. Herrikiideek izango dute lehentasuna.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA  
· PLATER KOMBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
PAIRKIN JATEKOA  
· bazkariak EGUNERO  
· afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361



## IRITZIA



ERRIGORA EKIMEN HERRITARRA

# 10 urteko argazki erraldoia berrosatu dugu

**A**tzera begira, 10 urteok utzi diguten argazkia berrosatzeko deialdi bezala aurkeztu genuen aurtengo kanpainak eman du berea: Argazki bete-betea osatu dugu ekoizle, euskaltzale, auzolangile eta milaka kontsumitzaileekin. 14.000tik gora saski iritsiko dira hurrengo egunetan beste hainbeste etxeetara eta Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzara 185.000 euroko ekarpena. Honenbestez, 10 urteko kanpainari esker, 2 milioi eurora iritsi da euskalgintzari eginiko emana.

Buñuelen, kutzaz betetako kamioiak atzean, Errigoraren komunitatearen beste argazki bat osatzeko elkartu gara hamarnaka lagun. Hemen gaude Erriberako euskaltzale, auzolangile eta ekoizleak, zorion eta esker on mezuari aurpegiak gehitzeko.

Urriaren 20an udazkeneroko "Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka" kanpainari hasiera ematean, Errigoraren 10 urte bete-bete ospatzeko gonbidapenez gain, saskiak eskatzeko deia zabaldu genuen. Zera genion zehazki: Argazki bete-betea berrosatu dugu. 10 urte betetzen ditugun honetan, udazkeneko kanpainan, Errigoraren argazki erraldoia, bete-betea, (ber)osatu dezagun. Garenak, izan garenak eta izan nahi dugun guztiak batu nahi ditugu.

Bada Errigoraren egiteko moduari segituta, gaur arteko egunetan eskuz-esku eta ahoz aho ibili da kanpaina. Aurtengo kanpaina honek horrela, Errigoraren 10 urte bete-beteen adierazgarri diren hamaika argazki utzi ditu:



14.000 saski saldu dira aurtengo edizioan.

- Hainbat ikastola, eskola, euskaltegi eta ekoiztetxetan gero kutxetan sartu ditugun esker on postalak idazten aritu gara.
- Ablitasen lehenik eta gero Durangon Errigorako ehunka boluntariok kutxak muntatu eta paleetan atondu ditugu auzolanean.
- Bilboko AEK-ren euskaltegietan Pituxa klown-aren emanaldiak izan ditugu gelaz-gelaz; Zangotzako ikastolan guraso, irakasle eta ikasleen aurkezpen jaia izan genuen; Lesakako eskolan ere aurkezpen xume bat,...
- Kanpaina bezperatan, Agerraldiaren eskutik, Tafallan, Gure Zirkua izan genuen eta aurtengo dozenaka ludoteken aurkezpena Ager Txiki egunean.
- Eta batez ere, Errigorako boluntarioak, sarekide izendatu ohi ditugunak,

**10 URTEOTAN, ERRIGORAK  
2 MILIOI EUROKO DIRU  
EKARPENA EGIN DIO  
NAFARROA ERDI ETA  
HEGOALDEKO EUSKALGINTZARI**

dozenaka ekimen xume antolatu ditugu herriz-herriz: Markinan, Iruñeko Donibane auzoan, Beasainen, Baionan, Gasteizen,...

Argazki horiek guztiak, Errigoraren komunitateaz gain, komunitate hori saretu eta emozionatzen duten balioak islatu dituzte beste behin ere:

- Zubigintza: Pertsona, lurralde eta ideia desberdinen bat egitea.
- Ekintza: Hitzetan baino egiten dugunean aurkitzea sinesgarritasuna.
- Ahalduntzea: Txikitutasunetik amets handia eskuratzeko gaitasuna badugula ikustea.

Aipatutako kanpaina hasierako prentsaurreko hartan, Mila Kintanaren (Hernaniko Errigoraren saski eskatzaile fidela) desioa ondokoa izan zen: "Nik aurtun berriro eskatuko dut deia eta nahiko nuke inoiz eskatu duten guztiak berriro eskatzea". Guztiak ez dute eskatu eta desioa ez da guztiz bete, baina nabarmena izan da berriro saskia eskatzera bildu den lagun kopurua.

Horri esker, besteak beste, hara aurtengo uzta zenbakitan:

- 14.000tik gora saski.
- Ager eremuko Aek; Tuteran, Lodosa eta Vianako ikastolak eta eskoletako D ereduko lerroak eta Agerraldia bultzatzeko 185.000 euro.
- Guztira, 10 urteotan, udazkenetako kanpainak sortutako diru ekarpena euskalgintzarako: 2 milioi euro.

Bete-betea izan da aurtengo Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka. Zorionak eta eskerrak Errigoraren parte garen/zareten/diren orori!

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

 943 361182  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
943 37 00 08

**Otar-Goxo**  
Elizagaia  
Zubiarreneana 2, 943 36 55 81



"Remigioren Udarregi txulotik" liburuaren aurkezpeneko parte hartzaileak, proiektuaren sorburuan. NOAUA!

## Remigio Mendiburu eta Udarregi, uztarri bereko "Txulotik"

"Remigioren Udarregi txulotik" izeneko liburua aurkeztu zuten aste hasieran Ixabel Agirresarobek eta Mattinek.

Aste hasieran, hitzez eta marrazkien laguntzaz LH5eko kideei Sutegin lehenik eta, segidan, Potxoenean prentsaurreko bidez aurkezturiko argitalpen honek herriko txoko zehatz bat du abiapuntu; Udarregiren omenez Remigio Mendiburuk ondu zuen eskultura. Agirresarobek hitza jarri dio sorkuntza lanari, Iñaki Martiarenak irudia. "Usurbildarra naiz. Umetan tarteka monolitoaren ondotik igaro eta begiratzen nion, jolastan nuen. Gerora hor bazela zerbaitek sumatu nuen", azaldu

zuen Agirresarobek azaroaren 20ko aurkezpen ekitaldian. Zerbait hori zer argitu zuten; "Udarregiren idazkera kontuan hartuta, hori nola atera kanpora, hori nola bizitza eman, bere idazkera baitzen lehen atentzioa deitzen zidana. Umetan ez nintzen konturatzen baina gerora bai. Mattini bidali nion ideia". Hura Ixabelen hitzei irudia jartzeko prest agertu zen. "Orduan bota zidan Remigio Mendibururen eskulturarekin bat egitearen ideia. Hortik uztartuta, Txulotik atera zaigu".

### Sorkuntzaren lekukoa

Ixabelen proposamena jaso zuenean Mattinek argi ikusi zuen berehela, aipatu moduan, "uztartu behar zirela bai Remigio eta Udarregi". Haien bien nahiz liburu honen egileen uztarketa baten isla da lan berria. "30 urte daramagu lan-kidetzan Ixabelek eta biok, transmisio lanean batipat". Labetik atera berri duten "produktu atsegina eta erakargarria egiten saiatu gara". Bere irudiarekin batera dauden Ixabelen hitzak nabarmendu nahi izan zituen Mattinek, "Ixabelen ahozkotasan aberats eta hiztegi eder hori liburu honetan dago". Testuinguru zailean sorkuntzan jardundakoak omendu nahi izan dituzte.

### "MONOLITOAK UZTARTZEN DITU UDARREGI ETA MENDIBURU"

"Ikaragarritzko lana egin zuten", aitortu nahi izan zien Mattinek. Haien sokari tiraka heldu zaien lekukoa jaso dutela adierazi zuten. Lekukoa, makila, liburu honetako bi protagonistak uztarri beretik lotzen dituenak. Batetik, Udarregi. "Monolitoak uztartzen ditu Udarregi eta Remigio Mendiburu, baina ez monolitoak bakarrik, makilak ere bai". Idazten ez zekien Udarregi bertsolariak buruz ikasitako bertsoak idazteko baliatzen zuena hain zuzen. Modu horretan, Udarregik "hitza plazara ekarri zuen, euskara plazara. Remigiok Korrikaren lekukoaren diseinua egin zuen", lotu zuen Agirresarobek. Horri guztiari esker "bat egin dugu", Mattinen esanetan. Potxoeneko aurkezpena gonbidatu zituzten hain zuzen, Usurbilgo nahiz Gipuzkoako AEK-ko ordezkariak.

Denon artean argitaletxeak plazaraturiko egitasmo hau kultur sorkuntzara bideraturiko Usurbilgo Udalaren dirulaguntza lerroak babestu eta bultzatu du, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak azaldu zuen moduan. Hausnarketa prozesu baten emaitza izan zen laguntza lerro hau martxan jartzea duela bi urte. Arlo honetako ikusketarako bideratzen zituzten dirulaguntzak, "baina ez sormenerako. Aldiz, herria txikia izanagatik sormena bazela ikusten genuen eta sustatu beharra zegoela, Udalak kultur sortzaileen bidelagun izan behar zuela, azkenean, sormenaz gain, tokiko ekonomia sustatzen duelako". Iaz, deialdian parte harturiko lau lanetako bat da aste hasieran aurkezturikoa.


  
**ARTZABAL**
  
 BASERRIA · JATETXEA
   
[www.artzabaljatetxea.com](http://www.artzabaljatetxea.com)
  
 ·EGUNEKO MENUA
   
 ·KARTA
   
 ·RAZIOAK
   
 ·HANBURGESAK
   
 ·BOKATAK
   


  
**943 36 91 39**


**ANORGA TXIKI S.L.**
  
**KRISTALDEGIA**
  
 ·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·ispiluak
   
 ·dutxa-itxurak eta irristailuak ·barandak ·kristal mota guztiak...
   
**Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45**





Zaintzaz hausnartzeko tartea hartuko dute azaroaren 30ean. Aurrez, QR kodeko galdetegia betetzeko deia egin du Usurbilgo Asanblada Mistoak. NOAUA!

# Greba orokor feminista ate joka

Azaroaren 30eko greba feminista orokorra udalerrri honetan osatu den Usurbilgo Asanblada Mistoak herriratuko du. Denon eskubide eta erantzukizuneko gaia den zaintzaz hausnartu eta mobilizatzeraz deitu gaituzte.

Zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba orokor eta feminista ate joka dugu. Azaroaren 30erako gai honen bueltan dugun eskubide eta erantzukizunagatik guztiok geratzera interpelatu gaitu Euskal Herriko Mugimendu Feministak.

Usurbilen ere nabarmenduko da greba eguna eta horren atariko egunok ere. Herrian berriki osaturiko Usurbilgo Asanblada Mistoak bi fasetan banatu du greba honen lan-keta udalerrian. Batetik, azaroaren 30era bitarte gizarteratze lanetan jardungo da. Aldarridun euskarriez beteko ditu herriko kaleak, eta adi, baita etxe atariak ere. Goiko argazkiko QR kodea duten orriak izango dituzue zuetako baten baino gehiagoren etxe-ko portalean. QR horien bidez,

greba honek auzitan jarriko duen zaintzen gaiari buruzko galdetegi batera sartzeko aukera izango duzue. Galdetegi hau osatzeko deia egin dute Usurbilgo Asanblada Mistotik.

## Hausnarketarako tartea

Modu horretan, gai honen bueltan herrian dagoen errealitatea marraztu nahi dute eta lekukotzak bildu. Horretarako, baliatuko duten bideetako bat da galdetegi hau, "helburua izanik nagusienengana eta enplegupean zaintza lanetan dabilzan pertsonengana heltzea". Jasotako erantzunak greba egunean goiz parterako iragarri duten "zaintza publiko komunitarioaren eraikuntza" izeneko solasaldian tratatuko dira. Bertan, izenburuak dioen moduan, gai horri buruz hausnartuko dute. Besteak

beste, Usurbil gai honetan jorratzen ari den bidea izango dute mintzagai antolatzaileek gonbidatu dituzten hizlariak. "Haiek azalduko digute zer den zaintza komunitarioa eta nola esparru asko eraldatzeko beharra dugun, errotikako eraldaketa behar dugulako". Hitzordu honen bidez, greba eguna bera herrian ikusarazi nahi dute herri erdiguneko erreferentziazko espazio hau hartuta, eta denek ezingo dutela egon ere bistaratu nahi dute. Izan ere, zaintza lanetan dabilzan batek baino gehiagok

## BI FASETAN BANATU DUTE GREBA HONEN LANKETA

ez du izango greba eskubiderik ere. QR bidezko galdetegiarekin hain zuzen, bereziki haiengana, haien hitza biltzen saiatu nahi du Usurbilgo Asanblada Mistoak.

Hausnarketarako tartearen ostean, herri mailako mobilizazioa egingo da, segidan bazkaria eta arratsaldean hiriburu nahiz eskualde mailan antolatu diren manifestazioetara joateko deia egin dute.

## Greba orokor feminista

### Azaroaren 26ra arte

QR kodearen bidez zaintzaren gaiari buruzko galdetegiak bete eta helarazteko epea, igande gau horretara arte.

### Azaroak 30, osteguna

**08:00** Esnadeia.

**10:00** "Zaintza publiko komunitarioaren eraikuntza" solasaldia frontoian.

**13:00** Manifestazioa herriko kaleetan barrena.

**Ondoren**, tuper bazkaria frontoian, norberak nahi duena etxetik eramanda.

**Arratsaldean**, manifestazioak Hernanin eta Donostian (18:00etan Antiguako tuneletik).

**Antolatzailea:** Usurbilgo Asanblada Mistoak.



Hilabete hasieran Usurbilgo Asanblada Mistoak eginiko bilkura Potxoenean. NOAUA!

# Zaintza duintzeko greba feminista eta orokorra

Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30erako deitua duen greba feminista eta orokorrarekin bat egingo du jende askok Usurbilek. Hitzordu hau antolatzen eta eragiten ari den Asanblada Mistoa osatu dute herrian.

Denok dugu zaindu eta zainduak izateko beharra. Denon eskubidea eta "denon ardura da" ere. Zaintza eskubide kolektiboa defendatu eta gauzatzeko bidean mugarririk garrantzitsu bat finkatu nahi du Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30erako deitua duen greba orokor feministarekin. Mugimendu honek abiarazi zuen prozesura batu dira Euskal Herriko beste hainbat eragile. Zaintza eredu komunitario, publiko eta duina eraikitzeko bidea denon artean jorratu beharrekoa dela ikusita, prozesua misto bilakatu zuten eta herri zein auzoetara zabaltzen hasi ziren. Usurbilen, maiatzean biltzen hasi zen emakume talde bat Kafe Tertulia Neska\* Gazteen Talde Feministak deituta. Prozesua gizarteko sektore gutzie-

tara hedatzen joan ahala, gainerako udalerrietan bezala, hemen ere Usurbilgo Asanblada Mistoa osatu dute. "Hortik aurrera, antolakuntza lanetan aritu gara, informatu eta grebara bitarte zer prestatu nahi dugun erabakitzen",

aipatu asanbladatik NOAUA!-ri berri eman diotenez.

## Lehentasunezko gaia

Prestaketa lan hauetara batu ziren, gogoan izan, urrian Usurbilen Euskal Herriko Neska\* Gazteek antolaturiko Bateriajotzean bildutako ehunka lagunek. Bertan, greba honi tartea egin zioten solasaldi baten bidez. Usurbilgo Asanblada Mistotik azaldu digutenez, "Euskal Herriko Mugimendu Feministako kideek azaldu ziguten 2020ko itxialdiak gure bizitzako esparru guztietan, baita militantzian ere izan zuten eragina". Hor, mugimendua bera antolatu eta berriz aktibatze beharra ikusi zuten, "beste norabide bat behar zuela" eta lehendik, "lantzen ari ginen zaintzen gaia urgentziaz mahai gainean



Azaroaren 30eko grebarako kartela.

jarri behar zela ikusi zen, pre-sazkoa zelako langileen lan baldintzak hobetzea, eta baita ere urgentea zelako egitura errotik aldatzea, ardurak banatzea, hausnartzea, lan horren guztiaren beharra eta balioa ikusaraztea, marko hau benetan hausnartzea eta agenda politikoan sartzea".

## Zaintza lanen errealitatea plazara

Izan ere, 2020ko osasun krisialdiaren aurretik izandako bizpahiru urteetako Martxoaren 8ko mobilizazioak gogoan izango dituzue, aurrekaririk gabeko mugimendua plazaratu zuten, eta harekin galdera bat; zer gertatuko litzatekeen, garai hartan egin ziren greba feministetan argi geratu zen moduan, mundu osoko emakumeak geratuz gero, besteak beste, zaintza lanetan. Horregatik, ardura hauek sostengatzen dituztenen errealitatea plazaratu nahi dute azaroaren 30ean. "Zer baldintzetan dauden, bizitza sostengatzen duen lan honek zergatik duen aurpegi femeninoa, arrazializatua, prekarioa eta zergatik den ikusezina. Zergatik dagoen, gainera, geroz eta merkantilizatuagoa, zeinen gainean ari garen gure bizitzak sostengatzen. Geure bizitzekin jarraitu ahal izateko zaintza lan hauen hutsunea beste batzuk betetzen dute. Gure bizitza duintzen jarraitzeko beste batzuen zapaltzen dugu".

## Denek ezin greba egin

Nork bere bizimoduari begira jartzeko baliatu nahi da greba egun hau. "Gure etxean zein den ardura banaketa, geure bizitzak zeinen gainean sostengatzen ditugun eta zer

**"GURE BIZITZA DUINTZEKO BESTE BATZUENA ZAPALTZEN DUGU"**



→ eragin duen pertsona batzuegan zama horrek", oroitarazi du Usurbilgo Asanblada Mistoak. Hau dena islatu nahi dute ezohikoa izango den datorren greba feminista orokorrean. Izan ere, denek ezingo baitute deialdi honetan parte hartu. Denek ez dute greba eskubidea bermatua izango; hain zuzen, zaintza lanez arduratzen diren askok eta askok eguneroko betebeharreri eutsi beharko diete, besteen bizitzak sostengatzen segiko dute hilaren 30ean ere. Greba honek hain zuzen, errealitate hau, hutsune hau irudikatuko du baita. "Geure asanblada mistoan ere ez gara ordezkari bat erreal bat izatera iritsi. Gai honetan lehen lerroan dauden ordezkari izatera ez gara heldu. Hain garrantzitsua den haien hitza beste bide batzuetatik jasotzen ari gara eta horretarako, ahalginak egiten ari gara". Horixe proposatzen digute, beraz, greba honekin bat egiteko beste arrazoi bat. "Ezin duten haiengatik gorputza jarri eta greba egiteko deia" egin dute Usurbilgo Asanblada Mistotik. Ildo horretan, gogorazi dutenez, "geure ardura da zaintza eredu komunitarioa eraikitze bidean, gure aletxoak jartzea, denon bizitzak duintasunez sostengatuko dituen".

### Grebarako prestatzen

Hilabete hasieran Potxoenean egin zuten bileran, greba honi buruzko azalpenak emateaz gain, hausnarketarako baliatu zuten. "Gustura aritu ginen gaiaz hitz egiten. Adin ezberdinetako emakume eta gizonenekoak elkartu ginen. Balia-garria izan zen gaia mahai gainean jarri eta bakoitzaren esperientzia zein ezagutzatik hausnartzeko", aipatu asanbladatik aditzera eman dute-nez.

Batetik, greba nola irudikatzen zuten, horri buruz hitza hartzeko aukera izan zuten bertara joandakoek. Hala, mobilizazio eta salaketa egun



Zaintza eskubide kolektiboaren alde Usurbilen mobilizatzeko deia egin du asanblada mistoak azaroaren 30ean. NOAUA!

hau, herriratzeko beharra nabarmendu zuten, zer nolako zaintza sistema nahi dugun plazaratzeko. Zaintzak bizitzako esparru guztiak zeharkatzen dituela ikusaraztea, zaintzaren ulerkeran sakontzea, zaintza ekosistema horretako parte direnen errealitatea ezagutaraztea proposatu zuten. Greba honetan ere gizonenekoak interpelatzea, agerturiko beste gaitako bat izan zen, baita Usurbil alor honetan egiten ari den bidea ikusaraztea ere.

Izan ere, prozesu bati buruz ari gara. "Badira urte batzuk jende asko lanean dabilenetik prozesu honetan eta jarraipena eman nahi zaio. Aldaketa ez da egun batetik bestera helduko, baina ezinbestekoa da. Bide horretan, mugarri gehiago jartzea litzateke greba honen helburua". Hauetako aldarri bat baino gehiago bilduko ditu azaroaren 30eko greba feminista orokorrak. Euskal Herriko Mugimendu

**"DENEK EZ DUTE GREBA ESKUBIDEA BERMATUA IZANGO"**

Feministarekin batera hainbat eragileek zaintzari lotutako aldarrien Herri Akordioa osatu eta aurkeztu zuten berriki. Segidan duzue, adostasun marko horretako aldarri nagusien zerrenda.

## Zaintzarako Herri Akordioa

### Zaintza sistema publikoaren alde

- Zaintza duinen uniberteltasuna eskubide gisa aitortzea.
- Zaintza zerbitzuen pribatizazioarekin amaitzea.
- Zaintza sistema publikoa indartzea eta garatzea.
- Etxez etxeko zerbitzua indartzea eta garatzea.
- Zaintza lanak transbersalki lantzea: hezkuntzan, osasungintzan eta lan eremuan, besteak beste.
- Familia nuklearretik at, zaintzeko baimenak zabaltzea eta handitzea: loturagramak.

**"ALDAKETA EZ DA BEREHALA HELDUKO, BAINA BEHARREZKOA DA"**

### Bizitza duinen alde

- Lan jarduna murriztu soldata murriztu gabe: zaintzeko denborak bermatzea.
- Gizonak interpelatzea, ez zaintzearen pribilegioari uko egin diezaioten eta zaintza lanetan ardura har dezaten.
- Atzerritartasun legea bertan behera uztea, eta bitartean, zaintza langile guztiak erregulartzatzea.
- Erroldatzeko eskubidea guztiontzat eskuragarri izatea.
- Etxebizitza eskubidea bermatzea: merkatuan esku hartzea.
- Agroekologia babestea eta sustatzea.
- Denontzako pentsio duinak ezartzea: 1080 eurokoak gutxienez.

### Zaintza langileen baldintza duinen alde

- Etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraztea.
- Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartzea: Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena bere osotasunean berrestea.
- Zaintza sektoreko langileen lan baldintzak hobetzea.
- Etxeko langileei gutxienezko soldatatik gorako lansaria ezartzea.
- Zaintzaileei laguntzeko sareak sortzea.



GuraSOSeK azaroaren 15ean agerraldia egin zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. ARGAZKIA: GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

# GuraSOSe eta Asensioaren agerraldiak Batzar Nagusietan

GuraSOSeK agerraldia egin zuen asteazkenean Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Zubietako erraustegiari lotuta, GHKren lehendakari eta foru ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensio ustez ingurumenaren aurkako delituagatik nahiz ustez baita dokumentuak faltsutzeagatik ikertua izaten ari dela berri eman ostean. AsensioK agerraldia egin zuen leku berean, bi egun beranduago.

Kanpo-auditoretza independentea eta hondakinen kudeaketaren gatazkari behin betiko irtenbide adostua emango dion elkarrizketa mahaia eratzea proposatu zien GuraSOSeK azaroaren 15ean Batzar Nagusietan egin zuen agerraldian batzarkideei. "Okerrak zuzentzea eskatzen dizuegu, ez diezuegu legitimitaterik kentzen". Elkartetik "Gipuzkoarentzako bigarren aukera" nahi dute. Agintariak "ukatu egiten dute errealitatea eta horren berri ematen duenari prestigioa kentzen saiatzen dira". Belaustegik gogorarazi zuenez, ordea, ingurumena babestea bete-beharra da. Kudeatzaileei

erreakzio gaitasun falta egoztearekin batera, arazo hau konpondu artean, erraustegiaren eragina "naturan nabaritzen ari da jada" ohartarazi zuen.

GuraSOSeK Toxico Watch fundazio holandarrak azken urteotan Zubietako plantaren bueltan eta Europako halako beste instalakuntzetan egin dituen neurketen emaitzak aurkeztu zituen. Kezkagarritzat jo zituen, urteotan handitzen joan baita kutsadura Zubietako erraustegiaren bueltan. GHK-ren beraren txostenek ere gai kutsakorren kopurua hazi direla diote GuraSOSeK esanetan, zenbait gai toxikoren presentzia lehen

baino lau edo bost aldiz handiagoa dela ohartarazten dutela.

## Proposamen bikoitza

Urteotan erraustegiak izandako arazoak zerrendatuzituen GuraSOSeK izenean hitza hartu zuen Joseba Belaustegik. Azkenak egunotakoak. "Gaur jakin dugu Zubietako erraustegiak zortzi egun daramala geldirik, bi labeak geldirik balorizatu gabe. Ez dakigu zer

**"INFORMAZIORIK EZ BADUZUE ZER KONPONDUKO DUZUE?"**

gertatzen ari den". Adibide honekin batzarkideei gogorarazi zien, "herritarrok informazioa jasotzeko gaude, zuek emateko. Informaziorik ez baduzue zer konponduko duzue?".

Testuinguru honetan, bi proposamen egin zizkien GuraSOSeK batzarkideen taldeei. "Ikertzeko borondaterik ez dagoenez, Batzar Nagusiek kanpo-auditoretza independente bat" egiteko gonbita egin zuen, "ohiko mekanismoek ez dutelako funtzionatu". Bigarren proposamena, hondakinen kudeaketaren arazoari behin betiko konponbidea emango dion mahaia bat eratzea, auziari irtenbide adostu bat emateko elkarrizketaren bidez. "Gipuzkoari bigarren aukera ematea" galdegin zuen. Proposamenok talde politikoei bidaltzekotan geratu zen GuraSOS.

Asensio ikertua izaten ari den albisteari dagokionean, "justiziako denborak azkarra goak izan behar lukete" Belaustegiren iritziz. Oraindik argitzeke dago akusazio gisa aurkeztu ahalko duten. Edozein kasutan, PSeri gogorarazi nahi izan zion, "GuraSOS ez, fiskaltza dela salaketa jartzeko duena" eta horren aurrean, gizarteak hau guztia ezagutzeko, informatua egoteko duen eskubidea defendatu zuen. "Ikerketaren hasieran gaude, baina ezin da ezkutatu zantzuak daudelako", iragarri zuen Belaustegik.

## Iritzi ezberdinak

Elkarrekin Gipuzkoak eskaturiko agerraldia izan zen GuraSOSeK. Kezka adierazi zuen Miren Etxebeste bozeramaileak GuraSOSeK helarazitako kutsadura datuekin. Ildo beretik mintzatu zen PPren ordezkaria ere eta gai honetan "gardentasunak erabatekoa izan behar du", adierazi zuen Iñigo Manrique bozeramaileak. PSeren ordezkari Susana Garcia Chuecak GuraSOSeK salaketan fidagarritasuna zalan-



→ tzan jarri zuen, GHK-ko eta erraustegiko langileak jazartzea leporatzearekin batera eta langileon indefentsioa salatu zuen. "Auzitegietan irabazi nahian zabiltzate, botere organu demokratiko hauetan irabazi ez zenutena", zioen. Ildo bereetik, larritzat jo zuen "inolako probarik gabe teknikarien aurka jotzea", EAJren bozeramaile eta Usurbilgo Udaleko zinegotzi Xabier Otxoak. Defentsa juridikoan xahututako 700.000 eurotik gorako gastuan diru gehiago "alferrik ez galtzea" eskatu zuen, osasunaren kontrako azpiegiturarik ez dela planteatu adieraztearekin batera. EHBilduk, aldiz, agerian utzi nahi izan zuen bere kezka erraustegiarikiko eta baita "foru gobernu kide bat halako auzibide batean egoteagatik". Justiziari azkar jokatzeko eskatu zion Jon Altolagirrek. Gardentasuna eskatu zuen gai honen inguruan.

**"Ez dut zitazio ofizialik jaso"**  
Gipuzkoako Batzar Nagusietako Elkarrekin Podemos eta PP alderdiek eskatuta, GHKren lehendakari eta jasangarritasun arloko foru diputatu Jose Ignacio Asensio azalpenak ematera agertu zen gipuzkoarron ordezkari politikoen aurrean hilaren 17an. "Ez dut epaitegietatik inongo zitazio ofizialik jaso, beraz, zuek aipatutako gertaeren xehetasunen berri ez dut". Ustez leporatzen zaiona ukatu egin zuen. Halere, ziurtatu nahi izan zuenez, "ahozko epaiketa badago, berehala dimitituko nuke. Ez diot inolako atxikimendurik karguari".

Horrekin batera, gaineratu zuenez, "zitazioa jasotzen badut, berriz agertuko naiz neronek eskatuta".

Bere burua defendatzeaz haratago, "langileen aurkako jazarpena ez dut toleratuko", haien lana aitortu nahi izan zuen. Azken aldian langileez



Jose Ignacio Asensio azaroaren 17an Batzar Nagusietan eginiko agerraldia. ARGAZKIA: GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

esandakoeekin "muga guztiak gainditu dira" gaineratu zuen.

Gezurtatu nahi izan zuen kontratu eta kontrol falta dagoenik Zubietako erraustegiaren gainean. "GHKren Asanbladak onartutako akordioak beti errespetatu ditu lehendakari honek, erabateko gardentasunarekin. Beti", ziurtatu zuen Asensio.

Batzarkideen taldeek nahiz GuraSOSek ahotan hartutako azkenaldiko erraustegiaren geldialdiari buruz zioenez, "geldialdi gehiago egongo dira prozesu industrial guztietan bezala". Lixibatuen arazoari buruz "baimen bateratuak dioen moduan biltzen kudeatzen da", gaineratu zuen. GHKren zerbitzuen aurtengo %40ko gailentzeaz zioen, "%40ko aurrekontu handitze bat egon dela".

GuraSOSi buruz adierazi zuen, "GuraSOS ez da haurren osasunaz kezkatzen, ezta ingurumen delituengatik. Instalakuntza bakar batengatik kezkatzen da" eta horretara-

ko, "modus operandi" zehatz bati erantzuten diotela adierazi zuen. "Behin eta berriz, ustezko irregulartasunengatik salaketak aurkezten ari dira eta orain arte ez dago ezer".

#### Batzarkideen erreakzioak

Elkarrekin Gipuzkoak azalpenak emateko deitu zuela Asensioaren agerraldia eta foru diputatuari "ez duzu daturik ematen" aurpegiratu zion Miren Etxebeste bozeramaileak, horrek gutxienez "susmoak" pizten dituela adieraztearekin batera. "Ez dago gardentasunik. Gure kontrol lana ukatzen duzu". Horretarako, "beste bertsioa" ezagutzeko deitu zutela agertze- adierazi zuen PPren bozeramaile Mikel Lezamak. "Zuk dena oso argi izan dezakezu baina gizarteak ez", gaineratu zion. GHKren langileei elkartasuna eta babesa adierazi zien PSEren bozeramaile Susana Garcia Chuecak. 2016tik iruzurra egiten jardun

izana egotzi zion GuraSOSi. "Jakintzat eman dira hainbat gauza inoiz frogatu ez direnean". Bere esanetan, lehenbizi erraustegia ez eraikitzea eta martxan jarri ostean "ixtea bultzatzen da", besteak beste, "alarma sortzen duten lerroburuekin".

Oso larritzat jo zuen EAJren bozeramaile eta Usurbilgo Udaleko zinegotzi Xabier Otxoak "halako plataforma batek demokratikoki aukeratu izan den gehiengo bati halako errespetu falta egitea". Egoera honetan, zioenez, "aspertuta gaude dramatizazio eta alarmismo honekin. Sinesgarritasuna galdu dute dagoeneko. Eskatuko nuke, behintzat, mesedez, teknikarien irudia eta osasuna babestea".

Azkenik, GuraSOSek egin bezala, EHBilduk ere iragarri zuenez, "auditoretza independentea eta publikoa eskatuko dugu Zubietako plantaren inguruan". Beharrezkotzat jo zuen taldeko bozeramaile Luix Barinagarremeneriak, izan ere, bere esanetan, ez direlako gaurkoak GHK-ko arazoak eta horiek "ukatu egin dira". Horregatik, "kontrol publiko zorrotza" galdegin zuen.

**J.I. ASENSIO:  
"AHOZKO EPAIKETA  
BALEGO, BEREHALA  
DIMITITUKO NUKE"**

**ELKARREKIN  
GIPUZKOAKO: "GURE  
KONTROL LANA  
UKATZEN DUZU"**

# "Usurbilen entzuteko tradizioa badago"

Helduentzako ipuin kontaketa saioak urriak izan ohi dira. Azaroaren 28an asteartea, Dorleta Kortazarrek '80 amandre' ikuskizuna eskainiko du udal liburutegian. "Aspaldiko nahi bat nuen; nire amonen istorioak kontatzea. Beraiek egin zuten bidearen oinordekoak garelako gu".

**Jorge Oteizaren aipu batean oinarritzen da zure ikuskizunaren izenburua, '80 amandre'. Ipuina ere, oteizaterra dela esan al daiteke?**

Asko esatea litzateke. Asko miresten dudan artista da eta berari 80 amandren ideia edo kontzeptua lapurtu diot. Oteizak esaten zuen 80 amandre nahikoa direla kobazuloetan bizi ziren emakumeak gaur egungoekin elkartzeko. Gustatu zitzaidan ideia, izan ere, 4.800 urte edo 80 amandre esatea oso ezberdina da. Milaka urte, luze egiten zaigu baina 80 amandren ideiak halako gertutasuna ematen du.

Nik aspaldiko nahi bat nuen: nire amonen istorioak kontatzea. Nire aurretik zeuden horien istorioak kontatzea. Beraiek egin zuten bidearen oinordekoak garelako gu. Hari horri tiraka heldu naiz honaino. Eta horrela sortu nuen '80 amandre'. Lau ipuinez osatutako ikuskizun bat da eta lau emakume dira protagonistak.

**"Nik lau amandre nahikoa izan ditut munduan nire txokoa aurkitzeko", esan izan duzu. Zure kontakizunak zenbat du biografikotik eta zenbat du fikziotik?**

Badu fikziotik eta badu biografiatik. Gure amonen istorioak entzuten ditugunean, gehientsuenak anekdotak izan ohi dira. Nik hala jaso izan dut behintzat. Zaila egiten zitzaidan hori ikuskizun bihurtzea, hori ipuina ekartzea. Baina ahoz-kotasunak baliabide ezberdinak ditu, eta aukera eman dit anek-



Azaroaren 28an asteartea Sutegin arituko da arratsaldeko 19:00etan.

dota txiki horiek ipuin bihurtzeko.

Kontakizunak badu nire parte bat, eta badu entzuleak sortzen duen beste parte bat. Azken batean, ipuina kontatzea iradokitzea da. Nik hitzak jartzen ditut, baina entzulea da hitz horiekin bere irudiak sortzen dituen. Nik nire amamen istorioak kontatzen ditut baina entzuten duenak bere amama dauka gogoan, izan zuena edo izan ez zuena, eta horrekin eraikitzen du bere zatia. Langintza hau hori da azken batean: guk hitzak jartzen ditugu, baina ipuina eta istorioa entzuleak bere baitan sortzen duen zera hori da. Eta horrek dauka benetan garrantzia eta pisua.

**Umorea, hausnarketa, ... Zein erregistro gailentzen da saio honetan?**

'80 amandre' saioa oso berezia da, oso pertsonala delako. Baina bestetik, bidaia emozional bat egiteko gonbitea egiten diot entzuleari. Eta emozio horien artean denetarik dago. Susmoa dut tekla nahiko sa-

konak ukitzen ditudala. Asko hunkitzeko saio bat da, barre egiteko ere bai, eta bidaia horretan denetarik dago. Lau ipuinak ezberdinak dira elkarren artean, eta ipun bakoitzak kolore bat ematen dio saioari.

Beraz, ipuinak entzutea etorriko den horrek denetik biziko duela iruditzen zait.

**Udal Parekidetasun sailak antolatuko du azaroaren 28ko emanaldia. Sutegi udal liburutegian arituko zara. Dena den, ez da Usurbilen arituko zaren lehen aldia.**

Haurtzako saio batean egon nintzen orain dela gutxi eta izugarri gozatu nuen. Asko nabaritzen da horrelako ikuskizunak zaintzen dituzten espazioak eta lekuak. Eta Usurbilen entzuteko tradizioa ba-

**"BIDAIA EMOZIONAL BATERAKO GONBITEA EGITEN DIOT ENTZULEARI"**

dago. Begibistakoa da bertako liburutegia bizi-bizi dagoela. Bertako liburuzainak oso profesional onak dira eta, ondorioz, hori nabaria da antolatzen dituzten ekitaldietan.

Usurbilen nabaritzen da haurrek entzuteko trebetasuna badutela, ohituta daudela entzutea eta ipuinak jasotzera. Eta guretzako, horrelako espazioetara joatea luxu bat da.

**"Orain arte ere indakoa jasotzen ari naiz"**

**Zure sare sozialetan ikusi dugunez, hamai-ka saio dituzu egunotan. Rock izarren pareko agenda duzu. Boladaka izaten da ala lan asko egiten duen gutxi horietakoa al zara?**

Egia esan, egun haue- tan ipuin saio dezentepilatuzait. Eznaiz inondikinora rockstar bat. Duela zortzi urte hasi nintzen eta orain arte ere indakoa jasotzen hasi naizela iruditzen zait. Nire lana eta nire izena zabal- tzen doala konturatu naiz.

Dena den, gauza puntuala da. Data sei- nalatueta asko deitzen digute: Azaroaren 25aren bueltan, Martxoaren 8an, Euskara- ren Egunean, Liburu-aren Egunean... Egun horien bueltan pilatzen zaizkigu eman-aldiak. Dena den, aldarrikatu nahiko nuke gure lana urte osorako baliogarria dela, eta nahiko nuke oraingo agenda hain pilatua izan behar- rean, urte osora za- balduko balitz.



# "Harro herri" aldarripean dator 23. Korrika

AEK 2024ko udaberrirako antolatzen ari den euskararen aldeko lasterketaren edizio berria aurkeztu dute egunotan.

Badator euskararen aldeko lasterketa ezaguna; oraingo honetan, herri oso baten harrotasuna erakutsi nahi duena. Martxoaren 14an Irunen hasi eta hilaren 24an Baionan amaituko da egun osoko jaialdia-rekin. "Harro Herri" aldarripean egingo da 23. Korrika, "euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasunaren adierazle eta erakusle".

Aurkezpen bideoaren bidez adierazi zuten moduan, "bideturte honetan garaia da euskaraz bizi nahi dugula ahobetez oihukatzeke. Harrotasunez. Mugi dezagun euskararen herria ingurua mugiarazi arte... Elkarrekin nahi ditugulako pausoak egin. Bete ditzagun etxeak eta kaleak euskaraz. Harro egon garenaz eta egiten dugunaz. Harro plazan, online zein bizitzan. Harro herri eta harro Korrikan".

## Aurkezpeneko mezua

Honatz 23. Korrikaren aurkezpenean zabaldu zuten mezua: "Harro herri, euskaraz jakin zein ez, har dezagun dimentsio orotan eragiteko konpromisoa, herria batuta. Harrotasunez! Konplexuak gainetik kendu, mugi dezagun euskararen

herria, ingurua mugiarazi arte... Elkarrekin nahi ditugu pausoak egin, espazio berriak irabazi eta, hitzez zein ekintzez, aldarri egin. Gauden harro garenaz, eta egiten dugunaz. Bete ditzagun etxe eta kaleak euskaraz. Harro plazan, online zein kanpoko bizitzan. Harro herri, eta harro Korrikan!".

## "Azterketak Euskaraz"

Oraingo honetan, Azterketak Euskaraz kolektibo gaztea omenduko du 23. Korrikak, "edo, zehazki, Baxoa eta Brebeta euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak". Antolatzaileen esanetan, "aitortza hau haien egoera eza gutzera emateko bozgorailua izan daiteke: Euskal Herri osoan, eta hemendik kanpo ere, jakin dezatela gazte horiek egun ezin dutela ikasketen zati garrantzitsu hori gure hizkuntzan burutu. Gainerako gazteentzat ere eredu garri izan daiteke ikustea egoera okerrenetan ere hainbat ikasle ahalegina egiten dutela euskara hautatzeko".

Korrikan bildutako laguntza euskararen normalizaziora bideratuko dute. Erakundeek ere zeregin horretan duten



Aurrerago jakinaraziko dute 23. Korrika noiz igaroko den Usurbildik. NOAUA!

"ardura garrantzitsua" ekarri zuten gogora antolatzaileek ekimen honen aurkezpenean.

## Parte hartzeko bideak

Aurreko edizioen antzera, 23. Korrikan parte hartzeko bide ezberdinak izango dira. Herrian osatuko den batzordean ekarpenak egiteko aukera izango duzue. Laguntza ekonomikoa ere egin ahalko da edo haren berri eman. Horrez gain, noski, ibilbideko kilometroak eskuratu nahiz lasterketan bertan parte hartzeko aukera izango da.

Xehetasun gehiago aurrerago emango dituzten arren,

**"MUGI DEZAGUN EUSKARAREN HERRIA, INGURUA MUGIARAZI ARTE"**

momentuz Korrika Laguntzaile izateko aukera duzue korrika.eus atariko galdetegia beteta. Hainbat abantailez gozatzeko aukera dute laguntzaileok: 300 sari baino gehiagoren zozketan parte hartzeko aukera, Korrikaren ekimenetan lehentasun edo deskontuak, deskontuak baita AEK-ko ikastaroetan...

## Ibilbidearen berri, aurrerago

23. Korrikaren abestia edota ibilbidea aurrerago ezagutzeko dituzte antolakuntzak, baita parte hartzeko moduei buruzko xehetasun gehiago ere. Oraindik itxaron beharrean gara, beraz, Usurbildik noiz igaroko den jakiteko. Ordura arte plazaratuko duten informazioa korrika.eus atarian edo Korrikaren app berria deskargatuta jaso ahalko duzue.



**Erabili meloia**  
Ez egin erosketak oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin  
#KontsumitzenJakin



U		T	A		
	A		T		U
R				U	A
I		A		T	
T		U	R		
A			U		T

## Sudokua

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak, TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

S	N	B	U	C	P
E	A	I	X	S	O
S	J	G	A	I	K
U	P	R	U	R	B
A	I	O	R	A	E
A	O	U	A	T	A



AIZU, BA  
NIRETZAT TRIKUA  
S [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ]  
DA



HARA!  
NIRETZAT, BERRIZ,  
K [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ]  
DA



K	U	N	B	I	A
I	A	I	R	O	S
T	R	I	Z	U	K
U	P	I	K	A	L
A	N	T	I	N	E
A	S	T	A	O	A




## Hitz ezkutiak

Zer diote gure neska-mutilek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki geziek agintzen dizuten moduan. Abiapuntua, bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo duzu. Jakin ezazu trikuari deitzeko moduaz ari direla biak.

## Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, begiratu irudiño bakoitzari zein hizki dagokion eta biribilean idatzi. Esaera zahar bat agertuko zaizu.



[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]
[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]
[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]	[ ]

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	.	,	!	?







# Hurbilagoko saltokietan erosteak saria dakar

'Erosle Txikien Iraultza' kanpaina urrian abiatu zen eta harrera ederra izan zuen. 100 opari banatu ziren eta argazkietan dituzue sarituak izan ziren hainbat bezero.



Hurbilagok maiz esan duen moduan, "guztion esku dago herriko merkataritza mantentzea". ARGAZKIAK: HURBILAGO.





Usurbilgo saltokietan erosketa sustatzeko kanpainari esker opari ugari banatu ziren bezeroen artean. ARGAZKIAK: HURBILAGO.





Deskontu-bonuak Usurbilgo hainbat saltokitan erabili ahal izango dira. ARGAZKIA, ARTXIBOKOA.

# Hurbilagoren ekimen berria martxan da: 'Ordaindu 20 eta eskuratu 30' bonu bidezko kanpaina

Astelehenean hasi zen kanpaina eta abenduaren 2ra arte iraungo du. Deskontu-bonuak gertuago.eus web orrialdean eskuratu daitezke.

10 euroko deskontu-bonuak eskaintzen ditu kanpaina honek eta astelehenean jarri zen martxan. Bonu horiek gertuago.eus webgunearen bitartez eskuratu ahal izango dira.

Ariketa sinplea da: online erositako bonu bakoitzaren-gatik 20 euro ordaindu behar ditu bezeroak, baina saltokian 30 euroko balioa izango du.

## Hiru bonu gehienez ere

Bezero bakoitzak hiru bonu erosi ahal izango ditu gehienez ere, beraz guztira, bezero bakoitzak 30 euroko deskontua lortu ahal izango du.

Ekimen hauek izan ohi duten arrakasta ikusita, komeni da garaiz ibiltzea. Bonuak gertuago.eus plataformaren

bitartez eskura daitezke. Azaroaren 20an aktibatu zen kanpaina. Lerro hauek irakurtzeko orduan, dagoeneko martxan izango da bonuen erosketa egiteko aukera.

## Saltoki hauetan

Deskontu-bonu hauek Hurbilago elkartekoak diren ondorengo establezimenduetan erabili ahal izango dira:

- Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.
- Ane Ile-apaindegia.
- Arruti Harategia.
- Enar Estetika.
- Esnaola Janari-denda.
- N.I. Ile-apaindegia.
- Intza Ile-apaindegia.
- Iratze natur-denda.
- Laurok Liburu-denda.

- Lizardi Liburu-denda.
- Lurda Mertzzeria.
- Otar-Goxo.
- Usurbil Optika.

**"GERTUAGO.EUS  
WEB ORRIAN  
EROSITAKO BONU  
BAKOITZARENGATIK  
20,00 EURO  
ORDAINDUKO DITU  
BEZEROAK, BAINA  
SALTOKIAN 30  
EUROKO BALIOA  
IZANGO DU"**



Saltzaileak kalera aterako dira.

## Hurbilagoren 'Udazkeneko Azoka' abenduaren 3an ospatuko da

Erosketa-bonuen kanpaina abenduaren 2an amaituko da eta biharamunean 'Udazkeneko Azoka' ospatuko da Usurbilen.

Salmenta-postuak ipiniko dira, tailerrak antolatuko dira, sargardoa dastatu eta gaztainak jateko aukera egongo da.

Bestelako ekitaldiak ere barnebilduko ditu azokak. Usurbil 650 Otarraren aurkezpena egingo da, besteak beste. Datorren astean emango ditugu abenduaren 3ko azokari buruzko xehetasunak.

**Usurbil Bizi 650, gabonetako otarra**  
Aurten ere, Hurbilago Usurbilgo ekoizle eta sortzaileen produktuekin osatutako otarrak zozketatuko ditu. Otarraren aurkezpena abenduaren 3ko azokan egingo da.





Hiru urteko etenaren ondoren, bueltan da Erle Eguna. NOAUA

## Igande honetan, 22. Erle Eguna

Urteko hitzordurik gozoena ospatuko da igande honetan eta berrikuntzekin dator.

Erle Lagunak antolaturiko ekimenen artean kontuan hartzeko bi ohar; batetik, gozogintza lehiaketan parte hartzeko aukera izango duzue. Osagaien artean ezta duten postre goxoak sukaldatu eta igande goizean frontoian aurkeztu ahalko dituzue. Epaimahaiak erabakiko du gero jaki ederrena zein den.

### Terapiak ezagutu eta probatzeko aukera

Bestetik, Potxoenean erleak, ezta ardatz duten terapia ezberdinak ezagutu eta probatzeko aukera izango duzue. Interesa dutenek aldeztu aurretik idatzi diezaietela antolatzailerari, erlelagunak4@gmail.com helbidean.

### 22. Erle Eguna Azaroak 26, igandea

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza txapelketetarako jakien bilketa.
- Goizean, Potxoenean: ezta oinarrituriko terapiak doan probatzeko aukera.
- 11:00-14:00 artean frontoian eta Dema plazan:
  - Azoka, postuetako salmenta.
  - Erakusketak Sutegin: erleak, ezta ontziratzeko prozesua,
  - Marrazki Lehiaketako lanak...
- 13:30 Sari banaketa: Euskal Herriko 22. Ezti Lehiaketako eta gozogintza nahiz marrazki txapelketetako irabazleak nortzuk diren jakinaraziko dute.
- Antolatzailerari: Usurbilgo Erle Lagunak elkarteak.

### 80 eta 90 urtekoei gorazarre

Mendeurrenaren bidean edo atarian diren hainbat kide omenduko ditu Aginagako Arrate elkarteak igande honetan.

#### Azaroak 26, igandea

- 10:00 Meza Nagusia.

- Ondoren, omenaldia, hamaiketako mariatxekin.
- 14:00 Bazkaria Aginaga sagardotegian.
- Izen-ematea itxita.
- Antolatzailerari: Arrate erretiratu eta pentsiodunen elkarteak.

## Dantza garaikidean trebatzeko deia

Talde berri bila dabilta dantza garaikideko taldean. Asteazkenero biltzen dira, 18:45-20:45 artean, momentuz Udarregi ikastolan. Eneko Gil dantzari profesionala da taldeko bideratzailea. "Taldea osateko beste hiruzpalau kide beharko genituzke", azpimarratu dute taldetik.

Izena emateko, idatzi whatsapp mezua 657 73 95 23 telefono zenbakira (Marta) eguerdietan, 13:30-14:30 artean, astelehenetik ostiralera. Sorkuntza, hainbat pautamanda inprobisazioalantzen dute. Probatzeko deia egin dute, aurtengoan berriz ere osatu duten taldetik.

## Aldaketak tren zerbitzuan

Geltoki berriko lanak direla eta, hainbat aldaketaz ohartarazi dio Eusko Trenbide Sareak-ek Usurbilgo Udalarari. Batetik, iragan azaroaren 18tik hilaren 25era arte, "iparraldeko nasak soilik funtzionatuko du, hau da, egungo geltokiari itsatsita dagoen trenbideak. Trenbide hori erabiliko da Donostiara zein Oriora joateko".



Geltokia berritzen ari dira egunotan.

### Bi zerbitzu gutxiago bost egunez

Azkenik, adi baita egunotan zabaldu duten ohar honi ere. Usurbilen eraikitzen ari diren tren geltokiko lanak tarteko, aipatu zerbitzua murriztu egingo du aste honetan ostiralera arte. "Zarauztik 7:20an eta 8:20an abiatzen diren eta Donostiara doazen trenak ez dute zirkulatuko. Barka itzazue eragozpenak" dio Euskotrenen oharra.

Ohar horren arabera, Orio aldetik Usurbilgo geltokira 7:34an eta 8:34an heltzen diren eta handik Donostia aldera doazen tren zerbitzuak eten egingo dira, ez dira eskainiko.

### Sarbide berriak

Biharamunetik, azaroaren 26tik aurrera, bestalde, "hegoaldeko nasak soilik funtzionatuko du, "beste abisu bat eman arte", eta, kasu horretan, bigarren eta hirugarren trenbideak erabiliko dituzte. Denbora tarte horretan, gainera, geltoki zaharrenean erosi edo ezereztu beharko dira bidaia txartelak, eta hegoaldeko nasara iristeko behin-behineko sarbide berri bat egokituko dute Zumartegi industrialdetik: egungo sarbide guztiak itxita egongo dira".

### Abenduan, KzGunea goizez zabalik

- Azaroak 29-30, 18:00-20:00: "X (Twitter) zure Smartphonean".
- Abenduak 1, 09:00-11:00: "Google Calendar".
- Abenduak 4-5, 09:00-11:00: "Argazkiei ukituak eman Smartphonearekin".

- Abenduak 11-22, 09:00-11:00: "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

### Informazio gehiagorako:

943 023 684  
tutor.usurbil@kzgunea.net

# Zuberoako ikastolen aldeko jaia larunbat honetan ospatuko da

Nafartarrak taldeak antolatu du egun osoko ospakizuna, Usurbilgo beste elkarte batzuekin elkarlanean

Zuberoako ikastolen mugimenduak 50 urte beteko ditu aurten. "Usurbildik haiekin bereziki harremana dauka-gunok beraiekin ospatu nahi dugu urteurren borobil hau", Nafartarrek aditzera eman digutenez. Hauxe da antolatu duten egitaraua:



Zuberoako ikastolen aldeko saskiak salgai daude oraindik.

## Azaroak 25, larunbata

- 11:30 Udarregi Ikastolan ongietorria eta harrera Zuberoako ordezkari.
- 12:00 Kale-jira herrian zehar Kantu-jirakoekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

- 18:00 Ikuskizuna Sutegin. Mixel Etxekopar eta Jean Kristian Galtzetaburu, Xiberoots taldeko Jon Etxekopar eta Pette Jaragoien, bertsolariak, Udarregiko ikasleak, Orbeldi.

- Sarrera: 5 euro (egunean bertan edo aurrez, Lizardin).
- Antolatzaileak: Nafartarrak, Kantu Taldea, Orbeldi.

## Saskiak eskatzeko epea ixtear da

Azaroaren 26an amaituko da eskaerakegiteko epea. NOAUA-ren egoitzan eska daiteke, edo online, ikaskoli.eus web orrialdean. Banaketa abenduaren 15ean hasiko da.

## Pettarra (50 euro):

Ahate gibel berrosatua, eztia, ardi gazta kilo, bixkotx gaztuak, pastak.

## Arbaila (57 euro):

Eztia, bixkotx artisanalak, kilo Erdiko bi gazta zati, bixkotx gaztuak, erreximenta, tisanak, pastak.

## Basabürüa (68 euro)

Xerri pate, bixkotx artisanalak, ardi gazta kg., xahalki axoa, lukainka idorra, pastak.

## Oinarrizko lehen sorospen ikastaroa eskainiko du DYAK

Oinarrizko lehen sorospen ikastarora animatzen denak oinarrizko ezagutza batzuk jasoko ditu, "egunerokoan topa ditzakeen arriskuei aurre egin ahal izateko baliogarri egingo zaizkionak: bihotz zein birika susperketa, zauriak, hausturak, erredurak...".

DYAK zabaldu duen oharra-aren arabera, ikastaroa euskaraz izango da eta bi egunez luzatuko da. Abenduaren 2an hasi eta abenduaren 3an amaituko da. Orduetgia hauxe izango da: 09:00etatik 14:00etara. Ikastaroa Usurbilen egingo da, Muna-Lurra, 26 kalean duen egoitzan.

## Izen-ematea zabalik

- 943 46 46 22
- www.DYAgipuzkoa.com
- Prezioa: 60 euro.
- Plaza kopurua mugatua.

**Sudokua**

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak, TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

HARA! NIRETZAT, BERRIZ, KIRIKINOA DA

AIZU, BA NIRETZAT TRIKUA SAGARROIA DA

**Hitz ezkutak**

Zer diote gure neska-mutilek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki geziek agintzen dizuten moduan. Abiapuntua, bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo da. Jakin ezazu trikuari deitzeko moduz ari direla biak.

**Mezu gordea**

Hizki-marrakiz alfabetoa erabiliz, begiratu inulako bakoitzari zein hizki dagoen eta biribilean idatzi. Esatera zahar bat agertuko zaizu.

**HIZKI-MARRAKIZ ALFABETOA**

A B C D E F G H I J K L M N O  
P Q R S T U V W X Y Z

BAI POLITA HITZ HORI!

**Nahas-mahas**

Ene, baina zenbat modu ditugu TRIKUA esateko? Alboko orrialdean bi modu dituzu, eta hemen hirugarren bat. Eraman hizki bakoitza bere geziak agintzen dizun tokira eta hitz hori zein den asmatuko duzu.

**Engainagarriak**

Ba al dakizu zenbat triku hiltzen diren errepeida pasa nahian, kotxeak harrapatuta? Guk ere ez dakigu zehatz-mehatz zenbat diren, baina asko eta asko direla ziur da. Gaixoak. Honako zortzi irudi-zatitxoen artean erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daturatzen inulako nagusiarekin. Bereiz itzazu.

**Bilatu**

Gure trikuari barraskiloak, bareak, intsektuak, harrak, txoritxoaren arrautzak, zizak, fruitu gorriak eta meloiak gustatzen zaizkio. Bilatu eta margotu. Bide batez, elementu bat falta da. Zein?

Plazan Bazan 14/15 orrialdeetako soluzioak.





15 urte ditu eta dagoeneko puntako txirrindularia da. Denboraldi honetan hainbat garaipen eskuratu ditu. ELKARRIZKETA: AIURRI

# "Errepidean maila hobea dut baina ziklo-krosean ere asko gozatzen dut"

## IRATI ARANGUREN TXIRRINDULARIA

Errepidean, udaberrian eta udan. Ziklo-krosean, udazken-neguan. Urte osoan bizikleta gainean da Irati Aranguren gaztea. Hamabi hilabetez, txirrindularitzaz gozatzen. Eta bidea egiten.

Irati Aranguren hamabost urteko usurbildarra da. Kadete mailako lehen urtean, Andoaingo Txirrindulari Eskolako kide egin zen. Errepideko txirrindularitzarekin nahikoa ez eta ziklokrosean ere murgilduta dago gaztea. Horrez gain, Europako txapelketan lehiatuko da, duen maila altuaren ispilu.

**Gaztea zaren arren, hainbat podium eta lorpen eskuratu dituzu. Denboraldian hainbat garaipen eskuratu ditut, beraz, oso gustura nago. Hala ere, lanean jarraitu nahi dut, maila hobea**

tu eta podium gehiago lortzeko.

### **Zein lorpen eskuratu dituzu azken aldian?**

Errepidean Gipuzkoako Txapelketan podiumera igo nintzen. Horrez gain, Gipuzkoako taldekako erlojupeko lasterketan txapeldunak izan ginen. Espainiako erlojupeko taldekako txapelketan ere parte hartu eta bi urtez jarraian irabazi genuen, kadeteetan. Modalitatea aldatuta, ziklokrosean, Euskaldun torneoko garaikurra eman nuen etxera.

### **Lorpenez asko hitz egiten da, baina horren atzean lan handia dago.**

Bai. Asko entrenatu ohi dugu txapelketetara fisikoki ongi

## **"LEHEN NESKA GUTXI IKUSTEN ZEN ERREPIDEAN. ORAIN ASKOZ GEHIAGO DIRA BIZIKLETAN DABILTZANAK"**

iristeko. Normalean, udazkenean eta negu artean hasten ditugu entrenamenduak. Esan beharra daukat, eguraldi euritsu zein hotzetan, entrenamenduak gogorragoak izaten direla; izan ere, egoera meteorologikoak asko baldintzatzen du txirrindularion entrenamendua.

Hala ere, udaberrian, tenperatura igotzearekin batera, entrenamenduak gusturago egiten dira, errazago moldatzen gara. Ondoren, lasterkekin hasten garenean, funtzionamendua apur bat aldatzen da.

### **Andoaingo Txirrindulari Eskolan entrenatzen al duzu?**

Ez. Entrenatzaile pertsonalarekin aritzen naiz, nire kabuz. Entrenamenduak prestatzen dizkit eta ariketa horiek betetzeko lekuak bilatzen ditut nik. Hori bai, lehiaketetan Andoaingo Txirrindulari Eskolarekin parte hartzen dut.

### **Ziklokros eta errepide modalitateetan ibiltzen zara. Zein duzu gustukoago?**

Errepidekoa. Nire ustez, maila hobea dut, baina ziklo-krosean ere asko gozatzen dut. Esan daiteke txirrindularitza oso gustuko dudala bere osotasunean.

### **Azkenaldian, emakumezkoen txirrindularitza indartu egin dela uste al duzu?**

Bai. Lehen, neska gutxi ikusten zen errepidean. Orain, berriz, askoz gehiago dira bizikletan dabiltzanak.

### **Lehiakortasunari dagokionez, maila handia al dago txirrindularitzan?**

Oro har, Euskal Herrian maila altua dago. Espainian ere, euskal herritarrok onenen artean lehiatu ohi gara.

### **Etokizunari begira, zer?**

Pausuak gutxinaka ematea gustatuko litzaidake, baina urrutira iritsi nahiko nuke, profesional mailara.

# "Adrenalina asko askatzen dut erortzen naizenean"

AXIER ARANGUREN ERRASTI DANTZARIA

Euskararen Galan parte hartuko du aginagarrak akrobazia saio ikusgarriarekin. Momentuz, zaletasuna duen jarduera honi buruz aritu zaigu lerrootan.

Badator Euskararen Eguna. Aurtengoan, Aginagan iragarri dute zikloa abenduko lehen astebururako Eliza Zaharra Elkarguneak, Antxomolantxa elkarteak eta San Praxku guruso elkarteak.

Geure hizkuntzari gorazarre egiten zaion abenduaren 3rako Xentimorik Gabe taldekoean "Gu primer!" antzezlanaz gozatzeko aukera izango dugu. Xehetasun gehiago datorren aldizkarian eskainiko ditugun arren, aurrerapen moduan; Inazio Tolosa, Ramon Agirre eta Nerea Gorriti ikusiko ditugu oholtza gainean. "Balentria handi baten berri emango dute; Ez amerikarrak, ez errusiarak, bi euskaldun izan ziren ilar-gira iristen lehenak. Gu primer!". Emanaldirako sarrerak Arrate tabernan edo usurbil-kultura.eus plataforman eskura ditzakezue. Baita bezperan ospatuko den Euskararen Galarako ere. Denetarik arte diziplinek zeharkatuko dute emanaldi hau, tartean herrikiderik ere izango da; lerrootako protagonista, Axier Aranguren Errasti. Oihal baten bueltan kiribilduta akrobazia ikusgarriak eskainiko dizkigu aginagarrak.

## 'Izan', talde izena duzue?

Emanaldiaren izena da, nahi duen horretan libre izateko aukera ematea sinbolizatzen du. Nerea Perez del Notario eta biok ariko gara.

## Emanaldi honetarako batu zarete?

2018an Kataluniara Nerearekin joan nintzen Erasmus antzeko programa batekin. Bera Euskal Herrian oihalekin aritzen zen eta han biok hasi ginen. Hasieran asko frustratzen nintzen, lehenengo saikeran ez zitzaidalako ateratzen. Euskal Herrira bueltatzean ez nuela segiko esaten nion neure buruari. Baina gero, hemen Adunako Zirkuolan segi izan dut.

## Nola definitu dezakezu Euskararen Galan eskainiko duzuen emanaldia?

Aireko akrobaziak dira. Oihalarekin bildu eta airean akrobaziak egingo ditugu. Politza da, adrenalina askatzen dizulako, jendearentzako oso ikusgarria da.

## Zenbat metroraino igotzen zarete?

Zortzi metro izaten dira askotan. Halere, ez dut izugarritzko esperientzia, xume-xume ibiltzen naiz hor. Batzuetan erortzeko beldurra sentitzen da, batez ere hasieran. Baina gero konturatzen zara ondo zaudela lotua, segurtasuna bada-

## "OIHALAREKIN BILDU ETA AIREAN AKROBAZIAK EGINGO DITUGU"

go. Askotan ausarta izan behar zara; goitik botatzerakoan, konfiatu behar duzu oihala ondo jarrita egongo dela. Koltxoneta jartzen dugu behean, badaezpada ere.

## Oihal bereziak behar dira halako akrobazietarako?

Oihala nahiko elastikoa, malgua da. Figura asko sortzeko aukera ematen du. Horrez gain, akrobaziak, erorketak eta halakoak egiteko aukera ematen dizu, baita beste pertsona bat hartzekoa ere.

## Zein da gustukoena duzun akrobazia?

Adrenalina asko askatzen dut erortzen naizenean.

## Publikoarentzat saio ikusgarriena izango da.

Malgutasun ona izanez gero, jendearek ere figurak asko gustatzen zaizkio. Malgutasun ona ez baduzu baita ere, baina bisualagoa da malgutasun onarekin eta erorketak beti eragiten dio zirrara jendearek.

## Zer prestaketa lana eskatzen du halako emanaldi batek?

Ni dantza mundutik nator. Malgutasun handia duten asko

## "NIRE BIGARREN SAIOA IZANGO DA EUSKARAREN GALAN"

soinketa erritmikotik datoz. Haien kasuan, oso nabaria da zer nola bizkarreko malgutasuna duten. Zenbat eta indar gehiago besoetan, hori ere lagungarria da gora igotzeko, goian gauzak egiteko, batez ere hanken laguntza ez duzunean, edota pertsona bat altxatzeko. Oihalarekin hasi aurretik beti luzaketa ariketak egiten ditugu.

## Kontzentrazio handia beharko duzue halako ariketak egiteko.

Bai. Ni nahiko despistatua naiz eta batzuetan zerbaitegitea noanean, askotan galtzen naiz pentsatzen ea oihala ondo muntatu dudan. Hor esaten dut pixka bat ausarta izan behar zarela eta zure buruari konfiantzaz esatea ondo muntatu dut eta bota egingo naiz.

## Malgutasuna ere beharko duzue emanaldian. Inprobisaziorako tarterik bada?

Jendaurrean aritzean jakin beharra dago nola atera une zailetatik. Trabatzen ari zarela ikusten bazara, beste figura bat sortzen duzu, edo beste zerbaitegitea duzu. Jendeak ez dakit asko nabaritzen ote duen. Oihalaren mundu honetan dabilenak badaki noiz trabatu zaren eta noiz ez. Ez dakienak uste du zu ondo ari zarela. Zu sufritzen ari zara eta ikus-entzuleak ze ondo ari zaren dio.

## Jendaurrean emanaldi gehiago eskainitakoa zara?

Hau nire bigarren emanaldia da Aginagako Euskararen Galan. Iaz, Madrilen egon nintzen ikasten antzerki musikala zirkuarekin. Han, kabaret estiloko emanaldi bat egin genuen, uztaiekin aritu nintzen. Bestalde, duela bi urteko udan Orioko Gaztetxean emanaldia eskaini genuen, Asteasu aldean ere. Urria honetan Arabako Genevillara joan ginen. Emanaldia eskaintzeko egitura muntatu genuen baina eurria eta haizea hasi eta bertan behera utzi behar izan genuen.





Axier Aranguren Errasti oihalarekin akrobaziak egiten. ARGAZKIA: IOSU OLABARRIA

**Formatu eta arte diziplinen arteko nahasketak gero eta ohikoagoak dira. Jendeak geroz eta gehiago eskertzen ditu halakoak?** Zenbat eta gauza desberdin gehiago sartu, ikusgarriagoa da. Ni ere emanaldia eskaintzera joan izan naizenean dantza edo kantua sartzan ahalegindu izan naiz edo zirkuko diziplina. Ikuskizuna gehiago betetzen du.

**Irakaskuntzan zabilta lanean. Bi munduok uztartu nahian ari zara edo bietako bat hautatzeko gogoz zaude?**

Dantza mundua oso gustuko dut, ikuskizunena. Balantzan jarriko banu, aukeratu egingo nuke baina badakit mundu hori ez dela hain erraza. Or-

duan, hurrekin irakaskuntzan aritzea gustuko dut. Bestea zaletasun gisa hartzen dut.

**Zaletasun horren irakaskuntza lanetan ari zara Aginagan. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?**

Haurrak oso gustura datoz. Oraintxe bertan lau datoz, irailean hamar bat ziren. Astean bitan etortzen ziren. Orain astean behin izaten dira saioak,

**"HAURREKIN IRAKASKUNTZAN ARITZEA OSO GUSTUKO DUT"**

lau hurrekin. 6-7 urtetik behe-rakoak dira.

**Nola uztartzen da dinamika hau hurrekin?**

Gauza oinarritzkoenak irakasten saiatzen naiz. Lehenik, jolasen bidez beroketa ariketak egiten saiatzen naiz. Gero oihala erabiltzen dugu. Altxera handira ez gara igotzen. Behean korapiloa egiten diet eta korapilo horretan egiten ditugu ariketak.

**Ariketa hauen bidez zer jaso dezakete hurrek?**

Gorputz hezkuntza batez ere, gorputzarekin lan egitea. Bestalde, geroz eta ikusgarriagoa den arren, oraindik ez da hain ezaguna mundu hau. Hori ikusaraztea litzateke helburua. Eskolaz kanpoko ohiko eskaintzaz gain, aukera hau ere badagoela.

**Euskararen Galan arituko zara bigarren urtez segidan. Nolako izan zen iazko estreinaldia?**

Oso oso polita. Oihala jarri zen Eliza Zaharreko habetik erdi-erdian. Goraino igota akrobaziak egin nituen. Jendeak pila bat animatzen zidan eta sentitu nuen babes handia, goxotasuna. Zoriondu zidaten gero, saioa oso gustukoa izan zutelako. Amaieran jasotako hitzek eta egondako mezuek asko motibatu zidaten berriz ere parte hartzeko.

**Dena ezingo duzu alde zurretik esan, baina zer nolako izango da aurtengoa?**

Oihala egongo da, baina horrez gain, beste diziplina batzuk egongo dira. Mezu bat plaza-ratu nahi dugu, emanaldi unean ikusiko da.

**"NAHI DUT MUNDU HONETAN SEGI ETA IKUSKIZUNAK EGIN"**

**Zer esan nahi zenieke Euskararen Galara joan asmo dutenei?**

Jendeak gala oso desberdin bat ikusiko du. Arte diziplina ezberdinei lekua egingo die. Hori oso aberatsa izango da jendearentzat. Iaz behintzat oso gustura ikusten zen. Aurkezleak ere lan oso ona egin zuten iaz eta hori ere nabari zen.

**Zer bide jorratu nahi zenuke sorkuntza munduan?**

Nahi dut mundu honetan segi eta ikuskizunak egin, jendaurrean gauzak egitea gustuko dut. Orduan, nahi dut segi gauza hauekin, ez dakit noraino helduko naizen. Talde bat sortzen hasi ginen diziplina ezberdinetako emanaldiak eskaintzeko, baina gero geratu zen taldea. Ea hasten garen berriro zerbait egiten. Nire ametsa zerbait sortu eta herriz herri jendearekin partekatzea litzateke.

## Euskararen Eguna Aginagan

**Abenduak 2, larunbata**

**22:00** Euskararen Gala: Rafa Rueda, Norton (EH Sukarra), Mikel Markez, Idoia Torregarai, Yogurinha Borova, Antton Telleria, Mattin komikilaria, Ana Goitia, Axi eta Nerea (IZAN), Camel Walkers, Asier Kidam magoa.

**Abenduak 3, igandea**

**18:00** Xentimorik Gabe taldearen "Gu primer!" antzezlan. Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman eta Arraten.



Udal gobernuak ostegun honetan aurkeztuko du udal aurrekontu proposamena Atxegalden eta Aginagan.

# 2024ko udal aurrekontua aztergai

Udalak bilera erronda bat abiarazi du aurrekontu proposamena aurkeztu eta tokian tokiko ekarpenak jasotzeko xedez.

Datorren urterako udal aurrekontuak aurkeztu eta tokian tokiko ekarpenak jasotzearekin batera, Usurbilgo auzo eta

herrietan dauden beharrei buruz aritzeko bilera erronda abiarazi du egunotan udal gobernu taldeak.

Egunotarako iragarri dituzte azken saioak Atxegalden, Aginagan, Kaxkoan eta Munalurran.

## Azaroak 23 osteguna

- 18:00 Atxegalden (Udarregiko jangelan).
- 18:30 Aginagan (Eliza Zaharrean).

## Azaroak 28 asteartea

- 18:00 Kaxkoan (Potxoenean)
  - 18:00 Munalurran (Eguzkin).
- Deitzailea: Usurbilgo udal gobernu taldea.



ARGAZKIA: UDARREGI.

## Udarregiko batzar nagusia

Beste batzuetan baino guraso gehiago bertaratu ziren Udarregi ikastolaren batzar nagusira. Agerialde eraikineko bigarren solairuan egindako berrikuntzak ezagutzeko aukera izan zuten.

## Futbol partidak

### Azaroak 25, larunbata

#### Harane futbol zelaian:

- 10:30 Kadete mutilak:

-Usurbil FT B

-Santo Tomas Lizeoa B

- 12:15 Kadete neskek:

-Usurbil FT B

-Intxaurdi CD C

**Oharra:** Infantil mutilek ere

Haranen jokatuko dute.

## Pilota partidak

### Azaroak 24, ostirala

#### 18:00 Usurbilen:

Kadeteak 2. Mailan:

-Alejo (Pagazpe)

-Artola (Tolosa)

-Aburuza (Pagazpe)

-Arandia (Tolosa)

Nagusiak 1. Mailan:

-Santxo (Pagazpe)

-Labaka (Hernani)

## Eskubaloi partidak

### Azaroak 25, larunbata

#### Oiaro kiroldegian:

11:15 Infantil neskek:

-Usurbil KE A

-Leizaran Urdina

12:30 Infantil mutilak:

-Usurbil KE B

-Ereintza Aguaplast

17:00 Kadete neskek:

-Usurbil KE

-Ordizia Enirio

18:00 Senior mutilak (Oñatin):

-Aloña Mendi

-Saizar Usurbil KE

19:00 Kadete mutilak:

-Usurbil KE

-Hondarribia Bidasoa

### Azaroak 26, igandea

11:30 Senior neskek:

-Urbil Usurbil KE

-Zuhagan Orio Eragin



## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 670410273.

## SALGAI

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiten lan egingo nuke. Goizez edo arratsaldez aritzeko prest. 616273785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, asteleheneetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Astean zehar zein asteburuetan haurrak zaintzeko prest dagoen neska

usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua whatsapp bidez: 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Ordutegian malgutasuna. 688 805 307.

## BESTELAKOAK

Azaroak 2an Errekatxikin bi giltza topatu ditugu. Galdu badituzu Udaltzainetan utzi ditugu.

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 23	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 24	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 25	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 26	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Astelehena, 27	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astearte, 28	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteazkena, 29	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Osteguna, 30	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 01	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 02	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 03	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

## Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## ZORION AGURRAK



**Zorionak Maddi eta Nora!** Azaroaren 26a Maddiren urtebetetze eguna izango da eta azaroaren 27a Norarena. Bi familien partez, egun onak pasa!!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

**Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTEGUNA 23

### USURBIL Santa Zezili

Zumarte Musika Eskolako talde instrumentalek kalejira egingo dute arratsaldeko 18:00etan. 19:00etan, kontzertua Sutegin.

## OSTIRALA 24

### USURBIL Sareren mobilizazioa

20:00etan Mikel Laboa plazan.

## LARUNBATA 25

### SANTUENEA Barreterapia

Izen-ematea aurrez egin behar da: santueneaguretxikiak@gmail.com 10:30-12:30 Gure Txikiak ludotekan.

### USURBIL 'Zuberoako ikastolek 50 urte' jaialdia

Ikus aldameneko albisteak. 11:30ean harrera ekitaldia Udarregi ikastolan.

## IGANDEA 26

### USURBIL XXII. Erle Eguna

Antolatzailea: Erle Lagunak. Goizez, Usurbilgo frontoian.

### USURBIL Haurrentzako zinea

"Hopper, oilasko erbia" filma. 17:00, Sutegin.



Nafartarrak taldeak antolatu du larunbat honetako jaialdia. Arratsaldeko emanaldian Jean Kristian Galtzetaburu eta Mixel Etxekopar (irudian) arituko dira.

## Zuberoako ikastolen aldeko jaialdia

Zuberoako ikastolek 50 urte bete dituzte. Saskien kanpainak berriz, 20 urte. Urteurren biribilak ospatzeko, Nafartarrak taldeak jai bat antolatu du larunbat honetarako.

- 11:30 Udarregi Ikastolan ongietorria eta harrera Zuberoako ordezkariak.
- 12:00 Kalejira herrian zehar Usurbilgo Kantu Taldekoekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

- 18:00 Musika eta dantza eta kantu emanaldia Sutegin. Par-tehartaileak:
  - Mixel Etxekopar eta Jean Kristian Galtzetaburu.
  - Xiberoots taldeko Jon Etxekopar eta Pette Jaragoien.
  - Herriko bertsolariak.
  - Udarregi Ikastolako ikasleak.
  - Orbeldi dantza taldea.
- Sarrera: 5 euro (egunean bertan edo aurretik, Lizardin).

### 'Hopper, oilasko erbia' filma Sutegin

Euskarazko haurrentzako zine zikloa bueltan da. 'Hopper, oilasko erbia' filma proiektatuko dute igande honetan arratsaldeko 17:00etan Sutegin. Ohi bezala, proiektiorako sarrerak 3 eurotan eskuratu ahal dira aurrez usurbilkultura.eus plataforman.

## San Tomas azoka

San Tomas azokako babarrun zein sagardo lehiaketan parte hartzeko asmoa dutenek, NOAUA!ko bulegora etorri behar dute.

Babarrunaren kasuan, parte hartzaile bakoitzak kg1 babarrun aurkeztu behar du eta trukean 12 euro jasoko ditu.

Sagardogileen kasuan, partaide bakoitzak 8 botila aurkeztu behar ditu eta botila bakoitzeko 1,5 euro pagatuko zaio.

Babarruna zein sagardoa ekartzeko, egun eta ordu hauek ahalbidetu ditugu:

### Azaroak 27, 28, 29

Ordutegia: Goizez, 8:00-13:00. Arratsaldez, 16:30-18:30.

### Abenduak 11, 12, 13

Ordutegia: Goizez, 8:00-13:00. Arratsaldez, 16:30-18:30.



Abenduaren 17an ospatuko da aurtan.

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**ARANKA**  
BERRIKUNTZAK  
606 37 21 05 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**Iñaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
600 024 825



# San Tomas lehiaketan parte hartzeko deialdia



## Informazioa eta epea:

Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena emateko datak:

**AZAROAK 27, 28 eta 29**

**ABENDUAK 11, 12 eta 13**

**ordutegia 8:00-13:00 eta 16:30-18:30**

## Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produktuekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.

## Sagardo lehiaketa:

Sagardoa etxean egiten duen usurbildarrek parte hartu ahal izango dute.

(Sagardotegiak ezin dute parte hartu lehiaketa honetan).

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

Informazioa: Noaua!ko egoitzan eta 943 36 03 21 telefonoan



**noaua**

# BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



**ERRIGORAKO PRODUKTUEN**  
**Bi saski**  
**zozketatuko ditugu**  
**NOAUA!ko bazkideen artean**



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus



Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

943 53 92 66 - 623 462 658

✉ irati.ibargoien@gmail.com

📱 @irati\_ibargoien\_fisioterapia

🌐 iratibargoien.com

📍 Puntapax kalea 6B.behea ezk. Usurbil 20170


eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

·diabetesa ·hipertentsioa ·gizentasuna  
·elikadura eta kolesterol arazoak

*elikadura ohiturak zure neurria aldatzen  
laguntzen dizugu!*

688 843 696 ZUBIAURRENEA 1, 1C USURBIL



USURBIL  
OPTIKA

PROGRESIBO,  
URRUTIKO  
ETA GERTUKO  
BIGARREN LENTE  
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



lturraldebotika

Tomas Iturralde botika  
33/22 PEZ.

·Dosifikazio sistema pertsonalizatua  
·Dermofarmazia  
·Produktu homeopatikokoak  
·Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!  
USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 19/22



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

zenta

ORTOPEDIA BAT  
BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure  
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Osakidetzarekin  
hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Kima  
MASAJE LEKUA

·Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa  
biomekanikoa

📞 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren  
azterketa bat egitera!

*sustraitu osasuna oinetatik*